

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ* 110n. Zenbakia Uztaila/Dagonilla
1987



UDEA:

- Ondartzak
- Ibillaikiak
- Opor-aldiak
- Jaiak...

JAURLARITZA: 50 URTE

BERBALDIA

Zenbaki onetan argitaratzen dogu Bizkai'ko Euskerearen Astean Zubikarai'tar Augustin'ek Eusko Jaurlaritzari buruz egin eban berbaldia. Ederra izan zan eta gaiñera, kondaira-arloko sarrera egin ondoren, euskereari buruz jarraitu eban, Jaurlaritzaren lan-arlo guztiak artu ezkeru dana agertzea gauza gaitxa izango zalako.

Irakurleak jakingarri asko aurkituko dabez berbaldi entzungarri orretan.

* * *

ERAKUNDE BARRIA

Jaurlaritza gure kondairan erakunde barria dogu. Barria ta eguneratua, gaurko gizartearen jokera dagokiena.

Euskalerrian beti izan diran eskualdeak alkartzeko oinkada ona da. Izan be Euskalerriak bere kondairan izan dauan uts aundi bat eskualde bakoitza bere bidetik ibiltea izan da eta jokera orrek kalte aundiak egin dauskuz, gaur bideratu edo konpondu ezin doguzan kalteak, esaterako Euzkadi'ren erakunde onetatik kanpoan Naparroa ta Iparralde-a aurkitzea.

Gauza ederra litzake erakunde onek Euskalerrri osoa, Naparroa ta Iparralde-a barru dirala, bere zainpean artzea. Elduko ete gara amets eder ori betetera!

* * *

JAKINGARRIAK

Igaz izan ziran berrogei ta amar urteak Lenengo Jaurlaritza sortu zala. 1936'ko urrillaren lenengoan onartu eben Madrid'en Araudia eta zazpian egin eban bere ziña lenengo Jaurlaritza onek, Agirre'tar Joseba Andoni Lendakari zala, Gernika'ko zugatzaren azpian.

Egun larriak gudaldiko egun areik, Jaurlaritzak egiteko eukazan lan zabal eta aundiak egiteko. Naikoa zan gudeari emon bear jakon erantzuna emotea eta espetxeratuen arazoai edo alde guztietatik etozan jazarpelai erantzutea.

Eta gero, Santoña'ko itunaren ondoren, ekiñaldi barria atzerrian bete-bearrekoa. Ederto edesten dau Odisea negargari au Joseba Andoni Lendakariak berak Gernika'tik New York'era, Berlin bide dala" deritxon liburu irakurgarrian.

* * *

ATZERRIKO LANAK

Jaurlaritzak lan asko ta aundiak egin dauz bere 50 urteko kondaira luze onetan eta egoera larrian, batez be Euskalerrriaren egia munduari azaltzeko bideetan, orretarako diplomazi-bideak eta eleiz-bideak artuta. Langille aundia arlo onetan, aurreko ZER onen zenbakian esaten genduan lez, Onaindia'tar Alberto jaunak Jaurlaritzan kideko ziranakaz batera, egin ebana.

Ez da aiztutekoa Lendakariaren eriotzea ta barriaren aukeratzea.

* * *

JAURLARITZA BARRIA

Urteak joan, urteak etorri, España'ko agintaritza zapaltzailleari be azkena eldu jakon eta demokrasi-antzeko giro barri au sortu da.

Ainbeste alegin egin ondoren, lengo Jaurlaritzaren onartzea eta barriaren sortzea eldu da emen gagoz gaurko giro barrian.

ELBURUA

Jaurlaritzaren eta Euskalerrriaren elburua zein dan argi dago: Euskadi Osoaren nortasuna eta askatasun osoa lortzea.

Oraintsu entzun dogu olako eskubide orren onartu-bearra Donostiko Militarren Gobernadore izendatu izan danaren agotik, baiña betiko arerioak ez dabe ain errez ori onartuko.

* * *

EUTSI TA JARRAITU

Jaurlaritzaren bidez eta erriko ekiñaldiak lagun dirala, aurrerapen aundiak egiten dirala elburu ori lortzeko, argi dago, baiña argi baita egiteko dagoan bidea luzea dala.

Egindakoari eutsi eta aurrera jarraitu, orixe da euskaldunak artu bear dogun bidea, azken-elburua lortzera eroango gaituan bidea, Europa'ko erri askeen artean Euskalerrria aske izatea lortzeko bidea.

EUSKO JAURLARITZA ETA EUSKERA (50 URTE)

Ez da nik aukeratutako gaia gaurko au. Eskatua be ez. Emona edo agindua baiño. "Eusko Jaurlaritzaren 50 urteak".

Gai zabala eta luzea.

Zegaitik gai ori? Bear ba da oituraz erabilten doguzan gaietatik urtetarren, edo ta gaur beste era batera oiturazko diran 25,50 edo ta 100 urteen ospakizun gogorapenez.

Dana dala alegin egin daigun zerbait esaten.

Lenengoz eskerrak emon bear dautsadaz gure Jaunari, 50 urte oneik ikusi eta ezagutu, bizi eta jazaten (sufri-duten) lagundu daustalako.

Gu, azken gerratera eldu giñanean, ameslari soillak giñan. Ez giñan politikari. Ameslariak.

Jakiña da Arana Goiri'ren itxarkundeari esker, gure gurasoak asita egozala gure jaubetasunaren kontzientzi bat artzen. Azkatasuna urrun ikusten zan. Gure erriak ez eukan indarrrik, eta txarrena, ez eukan batasunik be, batzuk naiko eben azkatasunerako. Baiña "azkatasun eguzkia basotik urten da..." abestuten gendun.

Eta gure agintarrietan eta ordezkarietan zela-alako kezka edo ardura be sortuten asia zan.

1917 urtean (gure gizalditik aria luzatzen astearren) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko Aldundiak, Gasteiz'en batuta, alako egitasmu antzeko bat egin eben. Aidean edo asmoetan geratu zan.

Gero Eusko Ikaskuntza arduratu zan egitasmu sakon eta zeatzago bat gertuten. Eta 1924 urterako Batzaldi edo Kongresu bat gertuten asi zan. Baiña Primo de Rivera'ren diktadura zuria etorri zan. Eta sei urtetako mututasuna ezarri.

Errepublika etorri zan 1931 urtean.

Danok dakigu urteko Maiatzaren bigarren eguna, Bilbo onetako liberalak jai ospatuten dakiela. 1932 urteko egun orretan Prieto politikaria Bilbora etorri eta au esan eban: Gobernuo lendarriak mezu bat, mandatu bat emon eutsala: Euskotarrei esateko euren askatasunak emoteko lokune (konpromisoa) eukala.

Egia esan, ez eban ezagutzen euskaldunen ortarako eskubide berezi eta jatorrik. Peninsulako beste erri guztiak eukiko eben askatasun egokitze bat lez baiño.

Prieto'ren mezua, ordez, beste era bateko egitasmuak ixildu naian etorran.

Jakiña da Errepublika era erabagi edo sortu zan egun berbertan, Getxo'ko Udaletxean, Jose Antonio Agirre'k Euskalerriko alkate guztiei dei bat egitea eskatu ebala, Gernika'ko Batzar etxean batu eta bertan Euzkadi'ri bere nortasuna berreskuratu eta autortzeko, eta bereala asi zirala Euskalerriko alkateak erantzun baikorra emoten.

Agirre'k zintzo jokatu nai izan eban. Alderdikerietan naastu barik, erri maillan, udal maillan aurrera eroan nai

izan eban bere asmoa. Erantzuna baikorra izan zan, ez bakarrik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren aldetik, bai eta Nabarra'tik be.

Barrero Eusko Ikaskuntza sartu zan, errialde bakoi-tzean bere Araudi edo Estatuto naikoa egin eta gero lau errialdetakoa ortik osotzeko asmotan.

Baiña Iruña'n egitea itxaroten zan Batzar Nagusia egin baiño iru egun lengano... Gipuzkoa'ko Udalak Azpeiti'n batuta, Batikanogazko artu-emonetarako eskubidea zuzen-zuzen euskaldunak izatea eskatu eben.

Gero Lizarra'n (Estella'n) sartu ziran eskabide oneik eta onartu zan Estatutoa, ustez beteko zana, baiña Madrid'en onartu zan Konstituziñoiko lenengo 24 atala zana, geroago 26 garrena izango zana, orrelako siniste eta eskubideen aurka etorran. Origaitik, Eusko Ikaskuntzaren egitasmutik kanpora artu edo sartu ziran atalak, ez eben oniritxirik lortuko ezetara be Madrid'en.

Gero beste nasteak sortu ziran. Udalak, asarrez, euren ardurak laga zituen, itxi. Errietan zela-alako gestorak sortu ziran. Erria gero ta beroago igarten zan. Bitartean Ekonomi-Ituna (Concierto Económico) be arriskuan igarten zan.

Orrelako giroan Euskal Udalen Batzordeak eta aldu-nak (parlamentariak) Zumarraga'n batzea erabagi eben. Baiña Errepublika, bere libertadea eskeintzen eta aizetu-ten, sakonetik euskal libertadeen bildur zan. Eta bere zain-dariak, orduan asaltoko guardiak deitzen ziranak eroan zitun Zumarraga'ko Udaletxera, Prieto eta lagunei ezik, bestiei berbetan ez lagateko asmotan.

Egun bi geroago barrero Udalik geienak euren aginteko-ardura itxi egin eben.

Nasteak eta ezin konponduak ezkertar eta eskumata-rren artean, eta Estatutoa mutu.

Giroa illuntzen eioan. Nik beste era batera egokiago esango neuke: sargoretzen. "Frente Popular" bat sortu bear zala España Laterrian, eta sortu zan. Auteskundeak irabazi be bai. Eta... euskaldunen Araudi berezia? Lena-koena: agindua bat eta emana bi, esanagaz bakarrik kont-enta adi.

Egoera orrek jarraitu egingo eban, 1936 urteko gerra sortu ez ba litz.

Eta gerrak gu euskaldunok bertan bera dana itxiko gendun bildurra sortu eban Madrid'en. Origaitik Manuel Irujo aldunari deitu eutsen Madrid'era españar gobernu nausian partaide izatera.

Irujo gertu egoan baiña baldintza bi ipini zitun: Eusko Araudia, Estatutoa onartzea eta E.A.J. Alderdiak ardura ori artzeko baimena emotea. Orrela Irujo'k Euzkadi'ra begira jokatu eban Madrid'en.

JAURLARITZA

Gure errialdeko egoera baltz ikusten zalako andik, eta premiñazko ebelako euskaldunen adiskidetasuna zaintzea, 1936'ko Urrilla'ren 1'an, Madrid'eko Korteetan, Eusko Araudia onartua izan zan. Orren ondorenez, Urrilla'ren 7'an lenengo Eusko Jaurlaritzaren eratu zan, Euskalerrian egozan alderdiak alkarregaz itz egin eta irizpide batera eldu ondoren, eta egun berean zin egin Gernika'n.

Orra, Estatutoari esker, eta gerra bitarteko zalako, ez Madrid'en bete-beteko esku zabaltasunez, baiña bai egoera larri baten estutasunen ondorenez, gure asmoetarako bide bat zabaldu.

Jose Antonio Agirre'k garbi esan eban Madrid'en Araudi ori onartu zan egun berean: Lege Biltzar onek errazoa emon nai izan dautso, *zati baten baiña ez ba da be*, euskaldunok urte luzeetan daukagun eta dakargun askatasun gurariari.

* * *

Gai luze eta zabala dala, esan dot, nirea.

Origaitik estutu egingo dot, itzaldi baten neurrietara egokitu eta mugatu. Eta, batez be, erakunde oneri dagokion edo beragaz lotuko daben ormetan sartu: Eusko Jaurlaritzaren 50 urte eta euskera.

Egun bat zeaztuteko, esan giñei, Euzkadi'ko lenengo Jaurlaritzaren istorian zear lenengoz, 1936'ko Urrilla'ren 7'an sortu zala.

Egun orretan zin egin eban Agirre tar Joseba Andoni lendakariak, Jaurlaritzako lendakari lez eta erakunde orren izenean, Gernika'ko Arbolaren kerizpean.

Eta egun orretan zabaldu zan Jaurlaritzaren barriaren lenengo egitasmu nagusia izango zana, bat bateko programa. Jaurgu agerpidea, deitzen zan euskeraz, eta bertan, labur, baiña zeatz, onelako asmoak aitatzen ziran:

Euzko gixonen eskubideak, nai berezikuak nai gixartekuak, ondo begiratu eta zainduak izango dira.

Zinismen agerketa eta uskurtz bazkunen azkatasuna be bai.

Bein-beingoz, gudearen zuzentza nagusija, agintza bakarra eta gudariak lagipetutea aleginduko da.

Erri bakea gogoz zainduko da.

Gudarozte-atzeko erri-gizonen ardura eukiko da.

Erri-zaintzarako oztia lenbailen ixentatuko da.

Gixarte-lagijetan agirizko aurrerakuntza dakarren erriketa erabiliko da, jakiñik gixon gustijak euren lan, ogasun eta adiñen egipenekaz aberrijaren nasaitasunari lagundu biar dautsala, eta gixonok, ordaiñez, gixarte ogasunak artzeko eskubidia daukela.

Euzko jaurguak, langilliei dirutzara, diru-irabazijetara eta lan-zuzentzetara eldu dagixan lagunduko dautse.

Alegiñak egingo dauz langillien irabazpidiei kalterik ez egiteko.

Lan-oporketarik ixan ez dedin, erri lanak ikasi eta zabalduko dauz.

Gudariak begirapen berezi bat ixango dabe...

Baiña, nire gaiari lotuta, au be agertzen zan lenengo egitasmu orretan: "Erri-irakaskintza gaietazko laterkera-biarkunak bete ezkeru, ikastola gustijetan eta ikasle malla gustijetan be, irakaskintza azkea eta euzkerea erabiltea lagipetuko da".

Egitasmuko agiri au ez eban lendakariak bakarrik izenpetzen, beragaz batera lenengo euzko jaurlaritzaren osotuko eben guztiak baiña, ordena onetan: Agirre, Monzon, De la Torre, Toyos, Leizaola, Gracia, Aldasoro, Astigarribia, Aznar, Nardiz eta Espinosa. Au da, guztira amaika (11) lagunek.

Jakiña danez eta igarriko danez, lenengo jaurlaritzaren onek, gain-gaiñez, guda araso eukan. Aurrez-aurre ekin bearra eta atzea sendotu bearra. Eta Gipuzkoa'ko anaiak Bizkai aldera igeska etortean, sortu eben lekutze eta egokitze zeregin larria.

Alaz eta laster asi zan Jaurlaritzaren ori beste kezka be eten edo erabagi naian. Orreitako bat, ainbat aldiz eskatu eta lortu ezin zan Euskal Unibersidade bateri atek zabaltzea izan zan. Nik esango neuke, gudan ebiltzan gazteei poz bat, itxaropen bat sortzea zala.

Eta Gernika'n illaren 7'an zin egin ondoren, lau egun geroago, illaren 11'an, Zuzentza eta Gogo Lantzea deitzen zan sailleko arduradun zan Leizaola jaunaren oro-agindu bat agertu zan Bilbo'n Osakintza Ikastola sortzen (Osakintza Fakultatea), Eusko Irakastola Nagusiko zati lez.

Oro-agindu orretan, zeaztasun guztiz, au esaten zan: "Euzkadi'ko izkuntza arazoa aintzakotzat arturik, euskera irakatsia izango da Osakintza ikastolan, osagilleak izan oi duten eguneroko jardunari egoki izango zaion eran; ontaroko Belgika eta Suiza'n erri-izkuntzak jakin erazten dituztela gogoan izanda".

Asmo ori aurrera eioala erakusteko, beste Oro-agindu bat agertzen da 21-XI-36'ko egunean: Onela diño asieran:

"Azaroaren 17 garrenez eman eta 18 garreneko Egunerokoan argitaldu dan Oroaginduak dion bezela, Lotazillaren lendabiziko egunean Osakintza Ikastola iriki erazi bearrean gera. Ortarako bear diran neurri eta erauak tajutzeko sasoi eldu zaigu beraz. Tajutze lan oneri ekiten, etzaigu aztu gure pausoak Euzko Irakastola Nagusia osatzera dijoazela: Osakintza Ikastola beronen zatia bai-toa".

Eta bigarren atalean, ikastaroetan banatuko diran gaien artean, Sendakintz-euzkera" agertzen da.

Geroago, 15-XII-36'ko Oroaginduan, Zinkunegi tar Joseba jauna izentatzen da Sendakintz-euzkera'ko irakasle lez.

(J. Zinkunegi, Errezil'en jaioa, Zarautz'eko osagillea, Balmes'en "El Criterio" Irizpidea deitureagaz euskeratu ebana...).

Ez da ori bakarrik.

Legeztuta egoan Eusko Araudiak, 7 garren ataleko f) zatian, Euzkadiri emoten dautsazan eskubideen artean, Euskal urietan jardungo diran agintzaren lanariak euskaldunak izan ditezela dion zatia da.

Eta gaitasun ori Lendakaritzari dagokionez, eta Lendakaritzaren guda auzian bururaino sartua dabilalako, Zuzentza eta Gogo Lantzea Zaingora eskubide ori aldatzeko legea agertzen da.

Baiña egitasmoen kezka eta ardurak, poz emonarren ez leuke erakutsi andirik emongo, egitadarik ikusiko ez ba litz.

Eta bat beintzat, gaur be erakunde askotan ikusten ez dana, au da: Nai eta gerratean egon eta egunetik gabera

gauza asko erabagi bear, Jaurlaritza bere zeregiñean asi eta lenengo egunetik Agintaritzaren boletina agertzen da, Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa" izenagaz, euskera eta erderaz, lege eta agindu guztiak, ele bietan agertuaz. Beraz jaiogaz batera euskeraz berbetan asten da gure Jaurlaritza. Eta geiago, jaiog eta irugarren illebeten ordurako Alderdia eta Jaurlaritzak Euzkadi'n sekula ikusi eta eza-gutu ez zan egitada bat aurrera eroaten dabe: "Eguna" euskera utsezko egunkaria sortu eta aurrera eroan, Bilbo'n egunkariak atarateko erreztasuna egon zan artean. Nik, une ori bizi nebalako, ba dakit egitada orrek zelako eragiña euki eban Bilbo'n agertzen ziran egunkarietan, ainbat bidar bertako zuzendariak zirikatatu ginduezelako euretara aldatzera.

Jaurlaritza, nai eta guda gero ta latzago joan, euskera kezka ikusten da. Ala 1937'ko Apirilla'ren 21'an, Euskal Irakasle Elkarteak sortzeko agindua agertzen da. Agindu orren asieran esaten da: "Ona erriaren gogo-lantzeari buruz garrantzi handia duan arazo bat: euskera zabaltzea eta indartzea, agintaritz-izkuntza dan aldetik zor zaion itzala, politika eta gizarte barrutietan emanaz".

Eta Euskal Irakasle Elkarte ori, Zuzentza eta Gogo-lantze Zaingoaren barruan aurrez sortua zan "Euskera eta Euskal-elerti" saillaren mende sartzen zan.

Geiago. Nai eta lekuak estutzen joan, Eusko Jaurlaritzak euzko ikastolak sortzeko alegiñak egiten dauz, Euzkadi'ko ikastolak deitzen ziranetakoak, eta orrela 1937'ko Urtarrillean bost ikastola sortzen dira: Mundaka'n bi: Tribisarrospe tar Jon eta Etxeita tar Joseba Imanol izenekoa; Barrika'n bat, "Elexalde" izenekoa; Bustiri'n bat, Axpe'ko Neskatoen ikastola eta Bilbo'n beste bat: "Amarrena" izenekoa.

Otsaillean iru: Barrika'ko "Goierri", Soporta'ko "Zelai aurre" eta "Zaldibar'eko" "Garitaonandia tar Bitor".

Epaillean sei: Orozko'ko Ibarra'n bat, "Errekalde" izenekoa Bilbo'n; "Zurikaldai Nikanor" deiturakoa Gordexola'n; Mundaka'ko Aur ikastola; "Eleizbarren" deiturakoa Zollo'n eta Sondika'n "Goierdiko" deiturakoa.

Orra bonbapean, gero ta lur estuagoan eta gerrate bateko neke eta burukomiñen ittotasunean, Euzkadi'ko Lenengo Jaurlaritzak euskera alde erabilitako ardura baztuen testigantza, aidean artuta.

* * *

Gerra galdu zan.

Eta gero?

Izena be kendu nai izan euskuen.

Ixilpea.

Ixilpea baiño geiago: estuntza.

Eta ez estuntza utsa, ixilla, bertan-berakoa. Estuntza zitala, salataria, zirikalaria, laidogarria baiño.

Itsu eta zoro batzuen jokabidetzat artu ezik, sinistu be ezin leikez orduko gertaera eta jokabide asko.

Gaur barregarri, edo ta nik esango neuke, penagarri. Baiña bizi genduzan denporetan, zital, aierlari, benetan negar eragille...

Kalean, kotxean, tranbian alkar artean euskera egiten zalako, isunak, multak.

Azpaldi ikusi bako bik kale-kantoi batetik bestera azpaldiko agurra, alkarri, euskeraz egiteko "lotsabakotaxuna" erakusten ebelako, zigorra.

Euskeraz egitea pekatu zan, gure gerra galtzeak Euskalerrian zabaldu eban zeru txikian. Kristiñau lez berba egin bear, nai ta Jesusen Biotzaren "detente" eta Karmen-go Amaren eskapularioz beteta, emakume ederrak bortxatu eta izorratzeko barruko kezka eta eskrupuloei aragikeriaren indulgentziak banatu.

* * *

Joera orreri urte batzutan eutsi eikeon. Gero, denporak aurrera joanaz, lotsagarri geratzen zan politika ori erabilenentzat.

Ziurrago zan, maltzurrago, satorrago, eskutuago, beste jokabide bat, arpegi bikotxa, barru garratz eta kanpo eder: zentsura. Muga bako zentsura, bere aurre eta atzeko eragiñagaz.

Aurrez denpora galdu eragin, aspertu, gogaitu eragiteko. Gero barruak lotu, ertsi eta kanpoei ederkatura egin.

Orrela emen trabak eta zigorrak, ukatzeak eta liburuak baiketak... eta emengo askatasun guzurrezko giroa etoikeriz erbestean erakutsi naian, liburu orreik zeifiek irakurri ez egoan tokietara erregalu lez edo zabalkunde maltzurrez bialdu, andik beste batzuk artzearen truke, Amerika nai Asia'ko laterrietako liburutegi nagusietara.

Orrelaxe urteak eta urteak, gaurko gazteak sinistu be egin nai edo ezin dituenak.

Aupada andi bat egin daigun.

Zubi luze bat igaro.

Berrogetak urtetako gaua igaro ondoren, egun sentia lako zabaltze bat igarten dan aldira jo daigun.

Eta ikusi euskerarentzat zelako legeak, araudiak, aukerak zabaldu, artu, itxi edo emoten diran.

* * *

Gure egoera, euskal egoera, dagon eran, gogoz eta eragiñez, lege biderako España'ko Konstituziñoian atek zabaltzea eta gure eskubideen oiñarriak ezagutu eraztea, nai ta ezko gendun. Orrela etorri zan 1978 urteko Konstituziño ori.

Bertan, 3 Atalburuko 2 atalean, au adierazoten da:

2. Espainiako beste hinkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan, beraien Estatutoei dagozkien eran.

3. Espainiako hizkuntza moeta ezberdinen aberastasan kultur ondare bat da eta hura babes eta benegarri izango da.

20 Atalak, "Espainiako gizarte aniztasuna eta hizkuntza ezberdina errezpetatuz" euren mesede eta zaintzarako legeak egingo dirala esan ondoren, 148 atalburura eroaten gaitu eta bertan atal bi oneik billatuko doguz:

148-1. Erkidego Autonomoak har ditzateken konpetentziak alor hontakoak dira:

17. Kultura eta Ikerkuntza bultzatzea eta dagokien, Erkidego Autonomoaren hizkuntza irakastea.

Ori Espaiñiako Konstituziñoian.

Orrek, garrantzi geiago emoteko, eta erbesteari lotze-ko eta itxura emoteko, toki bitara eroango gaitu.

Bat, Nazio artera, Konstituziñoiko 10 atalburuan esaten dalako, Konstituziñoiko oiñarrizko askatasun eta eskubideei dagozkien arauak, Giza-Eskubide Orokorren adostasunez egingo dirala eta eurei dagokiezan tratadu eta itunen araberan.

Origaitik 1979'ko Urrillean, Giza-Eskubide eta Oiñarrizko Askatasunak babesteko Europa'ko ituna izenpetzen da.

Itun orretan, 14 atalean, garbi esaten da, itun orretako eskubide eta askatasunak, ezelako bereizkuntzarik barik ziurtatu bear dirala, batez be sexu, enda, kolore, izkuntza, erligio edo politika nai bestelako eritziak, nazio txikiago eta beste izateak kontuan euki barik.

Gogoan euki bear da, nai eta bete ez, aurrez, diktadura denporan, 1966 urteko Abenduaren 16'ko Erri eta Politika Eskubideei buruzko nazio arteko ituna izenpetu zala, eta an,

26 atalean, Europa'ko itunean, len gogoratu dogun atalean esaten danaren bardintsu aurrez esan zala, eta

27 atalean, beste au esaten zala: Gutxiengo endataldeak, erlijio taldeak eta hizkuntza taldeak dagozan Estatuetan, talde orreitako pertsonai ez jakoela ukatuko euren taldeekin batera bere kultura-bizitzarako, sinismen-praktikarako edo izkuntza-erabilpenerako daukezan esku-biderik.

* * *

Ori erbestera begira, zabaltasun batera begira.

Eta etxeari begira, barruari buruz?

1979'ko Estatutoa emen daukagu.

Eta 6 garren atalburua Euskeraren ezaupidean dator, atal txiki oneitan zeazketak egiñaz:

1. Euskera Euskalerraren berezko izkuntza dalako, izkuntza ofizialen mailla izango dauala Euskalerrian, gaztelaniarekin batera, eta bertako bizilagun guztiak daukela izkuntza biak ezagutu eta erabilteko eskubidea.

2. Autonomiko Erakundeak kontuan eukiko dauala bertako egoera sozio-lingustikoa, eta ortarako bear diran neurriak artu eta erabidea billatu bearko dauala, ezaupidea ziurtatzeko.

3. Izkuntza dala-ta iñor ez dala gitxi-etsiko.

4. Euskera arazoetan Euskaltzaindia izango dala aolku emole.

5. Agintaritzak bateko Lurraldetik kanpora egin leikezan beste lurraldetako egoera kontuan artu al izateko neurriak artzeari buruzkoa da.

Jakiña, Estatuto au guretzat txikia da, alde bateri begiratzan dautsana. Eta geitu bearrean gara: Eta Naparroa'n?

Naparroako Foru Elkarteak, Naparroako Foru-Jaurpidearen Berreskuratze eta Obetzeari buruzko lege organikoa deitzen danean, "amejoramiento", deituraz eza-

gutzen dan legean, euskeraren nortasuna, duintasuna, mugatu egiten da, murriztu.

Beintzat bere 9 atalean, au esaten da zeatz-zeatz:

1. Gaztelera da Naparroa'ko izkuntza ofiziala.

2. Euskerak ere izkuntza ofizialtasuna izango da Naparroako lurralde euskaldunetan. Eta beste Foru-lege batek araupekotuteko lagaten da euskeraren erabilpen ofiziala.

Danok dakigu beste lege au, napartar askok ez dabela ondo ikusi, legez, Naparroa'ko zati baten baiño ez dalako onartzen euskerarentzako legekotasunik, eta jakiña, Agintearen ortazko ardurarik.

Itxi, laga daigun oraingoz Naparroa; ez bastertu, aurrean euki baiño, baiña oraingo egoerak guregana, gure etxe oiñera etortera beartuten gaitu.

Estatutoan iragarten diran aurapiderik egin ete da? Neurriak artu diranik ezin ukatu.

Ortara dator Euskeraren erabilpena araukotzeko oiñarrizko legea, 1982 urteko Azilla'ren 24'ko eguna daroana.

Bertan, Aintzin Idazpuruan, 2 garren atalean, zeatz esaten da:

2. Euskalerrriak euskera dau berenezko izkuntza.

3. Euskalerrriko Autonomi-Elkartearen izkuntza ofizialak, euskera eta gaztelania dira.

Gero, Lenengo Idazpuruko Atalburu bakarrean, Euskaldunen eskubideak aitatzen dira.

Bertan esaten danez.

Danok daukagu izkuntza ofizialak, beraz euskera, itez nai idatziz erabilteko eskubidea.

Danok daukagu, baita, ikasketak izkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.

Aldizkari, irrati, telebista eta beste adierazpenetan euskeraz entzun, ikusi eta irakurteko eskubidea.

Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan, euskeraz aritzeko eskubidea.

Edozein batzarretan euskeraz egiteko eskubidea.

Eta abar, eta abar.

Jaunak, gogartetu daigun, pentsatu daigun unetxo baten. Legea or dago. Zetarako? Zetarako? Guk eskubideak eukiarren, besteak betebearrik artu nai ez ba dabe?

Zelako azkatasuna eta indarra dauke legean ezagutzen daukuezan gure eskubideak, euretako txikienagaz baliatzen asi ordurako, besteak mututu eragin, edo atzeraka eragiten ba daukue, betiko ikusi ezin eta zitalkeriz?

Zetarako ikasketak izkuntza ofizialetan egiteko eskubidea, izkuntza ofiziala dan euskerarik ez ba dakie Unibersidadeko irakaslerik geienak?

Lau urte ta erdi dira "Euskeraren erabilpena araukotzeko oinarritzko legea" onartu zala.

Eta itaun batzuk egingo dodaz.

Bigarren Idazpuruan, Lenengo atalburuan, au esaten da:

8 Atala. "Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezen Herri-Agintaritzagatikako edozein aginte-arau-pide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko".

Nai eta 1982'ko Errenta-agerpideak, Bizkaia'n, erdera utsez idatzita etorri, nik euskeraz bete nitun, erdal idazkerari, lerro bitartean euskeraz sartuta. Ba, lengo astean, agerpide orreri buruzko ziurtapen batzuk eskatu daustez, eta jakina, erderaz.

Zer egin bear dot, erantzun ez eta nai daben eran artxi-batu dagiela? Ori nire kalte gertatu leike. Atzera bialdu ta euskeraz egiteko eskatu? Baiña zetarako da legea eta zetarako eskubideak? Ala eskubideak eskabide izan bear dabe, eta beti be, gure makurpen?

Onetan, autortu bearrean nago, batez be azken urte bitan, ba dabillala Bizkaia'ko Aldundia orretan ardura artzen. Baiña... zenbat uts-egite oraindik?

Atal berbertan, irugarren puntuan, lenengo puntuan agintzen dan elebitan egiteari, oraindik euskal kutsu eta indar geiago emon nairik, au esaten da:

“Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kaltetango gerta ez dedinean, herri-agintariek Toki-Ardularitzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dute”.

Sinistuko zendukie, oraindik, euskaldun uts eta jator diran erri txikietan, erderaz bakarrik egiten dirala idazki eta agiriak, eta euskeratzen bidaltzen dituenak be, ofizialtzat erderakoa erabilten dabela?

Ez dogu ikusten ba, gure Alderdi politikoak be, batzokietara, edo euren etxeetara bialtzen dituen idazkirik geienak erdera utsez bialtzen dituela, eta zerbait esan ezkerro, parkatzeko eskatzen dabela, prisaz egin bearra euki dabela-ta?

Zegaitik ez dabe euskeraz egiten eta erderara itzultzeko astirik euki ez dabela ta parkatzeko eskatu?

Esan dogun legean, 11 garren atalean esaten da, Euskalerritik abiatzen diran erri-garraiozko zerbitzu guztietan, iragarkiak, mezuak eta adierazpenak euskeraz eta gaztelaniaz egingo dirala.

Ziurtatu zeinkie iñok? Nik, orrela gertaten ez dala bai, ziurtatu neike.

19 atalean, unibersitate-eskoleko irakasleak bere bereizkotasunak eskatzen duenaren arabera eukeraz eta gazteleraz erabat gai izan daitezala lortzeko egokituko dituela euren ikasketa-egitarauak.

Noiz?

30 atalean esaten da: Idatzizko hizkuntza ofizial batasun eta araukotasunaz arduratuko dala, Euskal Erriaren kultura ondarearen funtsezko zati direnez euskalkiei bizi diran tokietan zor zaien begirunearen kaltetan gabe.

Alaz eta... gaur bertan ez al dogu ikusten Bizkaiko Aldundi berbera, nik esango neuke, bizkaiera erabilteko lotsaz edo bildurrez?

Onetara luze jardungo giñake, edo luze jarraitzeko gaiak aitatu leikez. Baiña gauzen gure gai nagusira, 50 urtetan egin edo beintzat egin nai izan danari buruz jarraitzera, kontuan eukita, 50 urte orreitatik Eusko Jaurlaritza baten nortasuna 8 urtetara mugatzen dala.

Ezin ukatu denporaldi ontan euskerari buruzko kezka eta ardurak egon diranik, oro-agindu, lege eta arauetan oiñarrituaz.

Batzuk gogoratuko doguz:

Euskal ikastolen erakundea (27-VII-1983)

Onein zeregiñetako bat, legean esaten denez:

4 garren atala,—A. Hezkuntza eta Kultura Sailak eman ditzan ikasketa egitarauai eta irakaspide arauai atxikiz ikastoletan euskerazko irakaskuntzak emateko artezpi-deak egiteratzea.

Irale. (26-XII-1983) (Irakaslegoaren alfabetatze-Euskalduntze programa)

Bigarren atala: “Euskal Autonomi Elkarteko ikaste-txeetan lanean diharduen irakasleak euskaldundu edo/eta alfabetatzea da Irale programaren helburu nagusia. Langintza osoaren azken xedea, horretara, zera da: aktiboan dagoen irakasle jendea euskara irakasteko, edo bere jakintzagaiak euskeraz beharrezko egokitasunez azaltzeko gaitzea.

Hizkuntza ofizialean erabilera Unibersitatez besteko irakaskuntzan (11-VII-1983)

Bere zereg iña: Euskara eta gaztelania derrigorrezko irakasgaiak izango dira lehenengo atalean aipatutako irakasmilletako ikastetxe guztietan.

Agindu onek beste geigarri batzuk euki zitun. Ala 1-VIII-83'ko “Hizkuntza Ofizialen Erabilerari buruzko dekretorearen garapena”, izenekoa. Ala baita “Irakaskuntzan hizkuntza Ofizialen erabilerari buruzko dekretorearen 9 Atalaren garapena” deiturakoa (3-V-1984) eta abar.

Irakaskuntza orokor maillan, jakingarri da *O.H.O.ko Goi Zikloko “A” Ereduko euskararen irakaskuntzaren araupena* (10-X-1985).

“Euskal hizkuntza eta Literaturaren Irakaskuntza Lanbide Heziketan (25-XI-1985).

Ori baiño lenago, *Euskal Hizkuntza eta Literaturaren Irakaskuntza B.B.B.en* (10-VIII-1982).

Bai eta *Euskal Hizkuntza eta Literaturaren Irakaskuntza U.B.I.n* (27-VI-1985).

Unibertsitate-Irakaskuntza (18-III-1985). Lege onetako 241 atalburuan au esaten da: Euskal Herriko Unibersitatearen hizkuntza ofizialak euskera eta gaztelania dira.

Baiña 242 atalburuan, guk ontzat ezin artu dogun au: Unibersitateak literatur euskara batua erabiliko du, bere kasuan, Euskaltzaindiak emandako arauai jarraituz, beroi baita Euskerari dagokionez, erakunde aholku-emailea.

Gogoan dogu, Euskal Estatutoa onartzean, “Euskaltzaindia sera *la* institución consultiva oficial en lo referente al Euskara” esaera zala ta, azken baten bakartasuna emoten eutsan *la* ori kendu egin zala textutik, será consultiva itxiaz, eta orrek, gaur Euskalerrian dagozan euskeraren buruausteei buruz, beste batzuk be aintzat artu bearra

JAURLARITZA

dagola esatzera beartuten gaitulako, batez be euskera jatorraren zale gareanok eta euskera jatorraren indarrean sinistuten dogunok, euskera biziko ba da edo ta erabiliko ba da beintzat.

HABE Erakundea sortzeko legea be eraginkorra izan da (25-XI-1983, kontuan eukita Habe'ren zeregiña bere sortzeko a) atalean esaten dan lez, "Gara-adinekoei euskera irakastea eta bai Euskal Herrian oiek euskalduntzearen eta alfabetatzearen suztapena era, hizkuntza-politikabidetarako gai den Jaurlaritzako ihardutze sailak emandako artezpideei atxikiz.

HABE'ri buruz eta batez be bere Euskaltegiei buruz ainbat agindu emon izan dira. Pozgarri izan zan Euskaldunontzat Euskal Telebistaren sorkuntza legea (19-VII-1982) bai eta Eusko Irratia'ren Sorkuntza legea be, egun berekoa. Eusko Telebistaren 16 garren atalean au esaten da: Irratsaioak bi izkuntzetan egingo direla kontutan izanik, Autonomia Elkartearen ofizial diren bi hizkuntzaz aski jabetuta egoteari balioa emango zaio" (Beteten ete da erabakitakoa?). Orrez gaiñera, ez dogu ukatuko euskera-aren mesedean ainbat arau, agindu, egitasmu eta abar artu eta emon diranik.

Or esate baterako, Bekak.—Liburuei laguntzak —Lopez Mendizabal Saria ikas-liburuentzat— Unibersitate Maillako euskerazko Liburugintzak —Banakako Ikus-Entzunezko Ikas-materialgintza— Euskara edo euskaraz irakasten duten Ikastetxeei laguntzak (30-VII-1985)—Ikastolen ekonomia hobetzeko diru-laguntzak (29-VII-85) Ikastetxetako giroa euskalduntzeko eskola-antzerkigintzarako laguntzak (22-X-85) —Eskol-umez osatutako bertso eskolentzako laguntzak (10-XI-85) —Euskal hizkuntzalariaren alorreko ikerlanetarako diru-laguntzak— Kultura eta Kirol Atsedenetako ekintzetarako dirulaguntzak (23-V-85)— Literatur lanentzako laguntzak — Aldizkako Argitalpenentzako laguntzak (3-VI-1985) eta abar.

Legeak egin dira. Erakundeak sortu be bai. Euskera-aren politika eta eragiñari buruz ainbat.

Lengo erreskadari begiratu eta erraza da beste batzuk geitzea. Ala Euskeraren Aolku batzordea sortzea (2-II-1982); Ala Izkuntza Politikarako Idazkaritza (2-II-1983), Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (6-VIII-1983), Antzerti Eskola edo Zerbitzua (12-IV-1983)...

Ez bakarrik Jaurlaritza berberarenak.

Jaurlaritza dira baita be (era baten) Lurralde Jatorretako Aldundi eta Batzar Nagusiak eta euren inguruko erakundeak. Eurak be ba diardue batzutan laguntza bidez, bestetan euren arnasa eta eragiñez euskerari nortasun eta aupada bat emon nairik.

Baiña... Argizarizko Museoekez gogoratzen naz sarri. Gizonik andienak gogoratzeko irudirik bitxienak egiten dira. Baiña ezin emon bizirik. Beti be edonoiz urte leiken argizari bigun eta gaixo koloretik ezin atara.

Denporari lotsa zaindu eta amaitzeko:

Gerra aurretxoan eta gerratean ain atsegiñez indarzen eta aupatzen eta erriaren onespenez eta atsegiñez erabilten gendun erri-euskerari (bear ba da neologismo biurri batzuen nabarmenkeria kenduta, eta gaurko bizibiderako bere sustraien muiñetik esne barria atarata, gure gaurko Jaurlaritza baten alegin eta erakundez, arnasa eta indarra, eragiña eta bizia emoten jarraitzen alegindu ba giña, elduko ete giñan une onetan euskeraren etorkizunari buruz nabaitzen dan etsipena lako kezka, illuntasun eta barruko naigabea gure artean igartera?

Zer adierazten dau orrek?

Problemaren bat ba dagola.

Eta askok dakiena da ori. Baiña euskeran be indarke-ria sartu da eta indarkeri orren bildurtiak ugaritu egin dira. Or dago euskeraren etorkizunerako ordago bat, erantzun eske.

A. ZUBIKARAI

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º - BILBAO-1

LAUAXETA

Zer esan negike Lauaxetari buruz? Gauza berezi, urtenik ez. Gizatasun aundiko gizona zala. Gizon txeratsu, argi ta, langillea. Olerkidetasunez ganera, niretzat adizkide ta lagun, aita bat lez izan zan. Nire lenengo olerkari ametsak, lenengo oñotsak erabidetu eta indartzen, oñarritzen alegindu zana beren aolku ta gogai, beren noiz-beinkako goralden ta aipamenakaz, asi barri nintzan egun urdurietan. Pilipinastik etorri barri nintzala ezagutu al izan neban an, bere zeregin, lanbidea zan Euzkadi egunerokoaren landola, idazgelan. Euskal atalaren artezkaritzan. A, bere Bilbon ta, ni neure Arteagan gurasoakaz, baserrian. Ori zala ta gitxitan ikusten ta alkartzen giñan. Noizikbein.

Esteban Urkiaga Basara, izenordez Lauaxeta, Bizkai-ko Laukiz errian jaioa zan, 1905 gko Dagonillaren 3'an. Ikasketak jesuitekaz egin ebazan, lenengo Durangon ta, gero, Loiolan. Baiña, ikastaldi orren barri emoten ez naiz luzatuko. Aren bizitza ta martiri eriotzari buruzko, aren olerkigintzari dagozkion iritzi-miritziak ta, osterantzeko ustekizun ta azalpenak azken bolada ontan irarri ta argiratuak izan diran bi liburu aintzagarrri ta marduletan daurkikez irakurleak. Bata, Lauaxeta Olerkiak Jon Kortazar ta Miren Billalabeitiak antolatua ta, bestea "Urkiaga-tar Estepan", "Lauaxeta", "Olerki Guztiak" izenburuz Aita Onaindiak zeatzasun aundiz eratu. Argazkidun liburu apain ta mardula. Liburu eder bijok dira akats-makats, eredukor ta txalogarri. Bijok eskuragarri, Lauaxetaren bizizeatzasunak ta, aren olerkigintzaren neurgai ta sorbideak, nundiknorakoa aztertzen, aren olerki lanaren argibideak ta, baliotasuna, egokiro ta, zuzen emoten alegindu izan diralako. Orrez ganera ba-dira beste jaun jakintsu batzuk be, sakonkiro aztertu ta arakatu dabenak Lauaxetaren olerkera mamintsu eta argidoia.

Arostegi dogu bat, Luis Arostegi, "Lauaxetaren Olerkien Gizatasuna" deritxon azter-lan ederragaitik. ZER aldizkariaren 104 zenbakian datorrena lenengo orrialdetik azkenengorañoako osotasunean.

Akesolo jaun argiak beste ainbeste KARMEL aldizkarian 1986 gko 176 zenbakian, Lauaxetaren gaurkotasuna ta, olerkari sena goraiatu ta munduko literatura aundien artean jartzen dau aintziñakoen ta oraingoan artean, Grezia, Erroma eta Europakoan ezagutzaille ona genduela eta literatura bakotxari bere guna aurkitzen ekienetakoa gaiñera.

Berrogei ta amar urte igaro dira, doistar egazkiñak Gernika lerkaiz erre, zanpatu ta ankazgoratu ebenetik, gure aurkako etsai askoren poz aundiz. Berrogei ta amar urte baita, egun batzuk geroago, Lauaxeta Gernikan arrapatu ta Gazteiz'a eroan ta, "an, espetxe biurtutako karmeldar komentuan illabete bi atxillo egiñik, bagillaren 25'an, goizeko 5,30'erdietan, su-izkillotua izan zan Santa Isabel kanposantuko ormearen kontra". (A. Onaindiak, "Lauaxetaren Olerki Guztiak idaztian".)

Nik ezagutu izan neban Lauaxeta gizon argi, jakintsu ta langillea zan. Buru-belarri murgildua zebillen lanean gogor, danetara eldu eziñik, egunoroko zeregiñak bete ta bere asmoak aurrera eroateko. Berak esana da: "Ordu luzeak ez dodaz idazteko, astegunetan lan eta, jai egunetan lan, aberriak beragan lotua narabil!".

Murgilduta zebillen euskal alorra zeatz atxurtu ta lur landu orretan munduko landara berezienak txertatu eta baratzeratuz.

Klasikuak gogoko ebazan baiña, berak esaten eban lez, "ludiari arte edo irinarte batetik ez jako begiratu bear, tarte batetik beti moeta batekoa iduriko jatzulako. Ateak zabaldu egizuz ludia ikusteko, izadiari agur egiteko ta begiak joko dabez amaikatxo moetatako lurak eta edertasunak". Areago oraindik: "Klasikoen zaiña eta osasuna atsegingarri dala esango dot. Baiña baserriko emakume lodikotea, artoberoz azia, matrail gorria, atsegingarri jatan arren, txaide arteko emakume aratz eta lerdena atsegiñago jat. Usain ohea daukatsu txaideko emakume orrek. Biak atsegin". Lauaxeta gorenetakoa olerkari on bat dogu ta, benetan aintzagarrri!

Urte aztun luzeetako illunpe baltzean aren izena baztertua euki nai izan dabe, olerkari lez, garrantzi aundirik emon barik, zergaitik ete? Abertzalea zalako? Martiri au intelektual aireko zenbaitek ezer gitxi balitz lez maltzurkeriz aren olerkera eta izate bera be, lorrindu ta estaldu, bertanberatu nai izan dabe.

Baiña urteak joan, urteak etorri, urak bere bidera datoz gardentasunezko ekarriz.

Beraz, oroitu ta aintzaldtu izan bedi Laukizko seme gotor, olerkari ta idazle martiri agurgarri ori!!

MUNIATEGI-TAR SABIN
1987 garren Ekainak 16



JOSE ANTONIO GOIRIA, OLERKARI

Gaur zortzi Martiartu torretxea ikusten izan giñan. Sakon-une gordean eta muiñoz esitua dago. Leioa'z bestekaldean. Toki atsegiña, askok billatua. Aspaldikoa lauko eder au; ba-ditu amar bat metro gora, zabal ta luze urriago. Garai bateko espaiñar aginduaren araueran, goitik moztua dirudi. Uts barrurik. Bitxia dozu kanpotik be, leio, argi-zulo, irrikistu ta gezi-medar bakanez. Egora ate bat dauka, leen itxi ta gaur zabalik, baita gaintxoan maillaz igonda beste sarrera itsu bat be.

Andik-emendik begira, ikusle bakotzak bere eritxia ariltzen. Ak onela: "Leio ori, zergaitik amaiera barik?". Eta nik erantzun: "Zergaitik gaur olerki batzuk be amaitu bage? Migel Anjel italiar artista aundiak ba-daukaz olan oroigailu batzuk; bertanbera lez itxiak, amaitu barik. Zergaitik ete? Porrot egin ebalako? Umotasunik eza? Eukan asmoa gainditu eziña? Ez dakigu.

Ezagutzen doguz olerkiak be amaitu bakoak. Luis Arostegi'k, esaterako oraintsu euskaldun karmeldar probintziak izentatuak, poesi-liburu bat dauko "Amaitu bako poemak" deritxona, Ipar-Amerika'tik ebillela egiñakaz osotua. Bai, poeta batek be, artista dalarik ain zuzen, laga oi ditu bere lan batzuk gaillurreko montxor-ikurra ipiñi barik.

Eleiz-gizonak abade naiz praille, uste dabe or kalean astitsu bizi dirala euren itxitu ixillean. Ezta egia, erdizka baiño. Edozein dala bere lanean diardu, eta bertatik uste gabeko deia: meza, autortza, eleizakoak eroan, kontsulta bat, ikustaldi bat, uneoro ainbat olako; esku arteko lanari agur esan bearra. Eta olerkari batek, doi-doi amaitzeko eukan poema, buru emon bagarik geratzen jatzu.

Gizona.—Gaur auzira dakargun Goiria, euskal idazle jatorra be, antzeko bizieran zenga egiña dala esan bear. Orain egotaldi luze samarra daroa Eibar'en, baiña urte askotan atala ta dantzan ibillia dogu Ego-Amerika zear, egiazko asti ta giro eroso bage olerkigintzarako; erbestean arima-zain, Aberri-miñak joa... Alan be, goi-irriak barnea iraultzen eutsonean, luma artu ta bertsogintzan barruko miña ta kezka omotu oi eban. Eta, esana, astirik ezagaitik edo oler-giro urriz amaira barik itxi bearra izan dau olerkia. Goiria'ren poesi-lanak ainbat agerkaritan daukazuz, eta argitara emon barik daukazanek ez dira gitxi.

Kortederra'n jaio zan Goiria, 1908'ko urrillaren 25'an, Galdakano'ko Gumuzio auzunean. Berau Goiria-Munioz-guren sendian 9 seme-alabetatik zaarrena. Zortzi urteko zanetik Larra'ko karmeldar Ikastetxean lendu eban bere arima, 12 urtegaz karmeldar izateko asmoa erakutsirik.

1924'ko garillaren 7'an artu eban karmeldar jantzia, urrengo urtean garillaren 8'an profesa egiñik.

Ondoren Markiña'n urte bete, edezti, elerti, izkuntzak eta abar kultur soillean, karmeldar istori, mistika ta goi-latiña buruzko gaiakaz naste ikasten. Gero, Gasteiz'en iru urte Filosofia ta oni dagokiozan gaiez jabetzen, eta Begoña'n urte bi Teologia ikasten. Gero Kolombia'ra joan bearra izan eban bere ikas-lagunakaz batera. Errepublikako aizeak ziran nagusi.

Kolombia'n jarraitu zituan bere ikasketak. 1931'an artu eban Diakonutza Aita Santuaren ordezkari zan Gio-be Paulo kardinalaren esku-ezartez. Mezakotu, barriz, Medellin'en, 1933'ko urtarrillaren 29'an, karmeldar mojen eleizan. Tiberio Salazar izan zan apaiz egin eban gotzaiña.

Ikas-urteak amaitu ebezanean Frontino'ra bialdu eben nagusiak. Eta an Uramita deritxon erritxoan parroko izan zan urte bitan. Andik Bogota'ra San Kristobal parrokira, eta ondoren Santa Teresatxo deritxonera. Bogota'n iru urte egin ondorean, Medellin'era ostera be, beste iru urte emen emonik; Praga'ko Ume Jesus'en Anaidia ta Teresatxo deunarena ta Katekesis euki ebezan bere arduruan. Egotaldi bi Palmira'n eta gero Sonson'en Karmen'go Anaidia zuzendu eban, azkenez Frontino'n nagusi ta txauburu izanik.

Euskalerrira biurturik, emengo karmeldar komentue-tan be etenbako lana egin dau: Larra'n urte bi, Begoña'n zazpi ta ogetaamaika ta erdi daroaz Eibar'en. Gaztedia zuzendu eban Begoña'n, "Gaztedi" deritxon dantza-taldea sortuaz: neska-mutil jatorrez oosturiko gazte-talde au Euzkadi osoan dantzari ibillitakoa dozu. Eibar'en Karmen'go Amaren Kofradia ta Teresatxo deunaren gazte-taldea zuzendu izan dau.

Euskal idazle.—Arazo ta zeregin askotan sartua bizi izan danarren, idaztea izan dala esan dagikegu bere goidei berezi-berezia. Markiña'n ikasle zala asi zan irakasle euki eban Aita Urbano Manzisidor, Lemoa'ko seme aber-tzale zintzoak saka eraginda, Donostia'ko "Euskal-Esnalea"-n idazten. Ondoren Gasteiz'en eta Begoña'n egoalarik, Bilbo'ko "Euzkadi" egunerokoan eta Larra onetan asibarrri zan "Karmen'go Argia"-n. Ona Begoña'n egoalako bere autorra: "Txikitatik nekarren euskeragana-ko griña, eta Begoña'n ixillean ateraten genduan "Gautxori" aldizkaria neuk zuzendu neban azkenezko urtean".

Erbeste zear urteak erreta be, umetatik ekarren griña ez jakon moteldu, geitu baiño. Kolonbia'tik lan asko bialdu zitun "Karmen'go Argia"-ra, bai bertso eta bai olerkiz. Eta au be, berak autortua dogu: "Nire lan-erarik berezienak iru izan dira: danetariko itzaldiak, Anaidiak eta euskera. Sei idazti argitaldu dodaz eta beste sei daukadaz argitaldu barik, baiña eginda. Iru urtetan itz egin neban 'Arrate' irratian. Dana euskeraz, astero ordu erdi".

Orrezaz ostein, aspertu barik idatzi dau Euskalerriko ta kanpoko euskal aldizkarietan: "Jaungoi-Zale", "Ekin", "Argia", "Euzkadi", "Goiz-Argi", "Anaitasuna", "Agur", "Zer" eta abar. Daukazan liburuak, mardul-mardulak dira, "Goi-Bidez" deritxonak adibidez, 428 orrialde daukaz.

Olerkari.—Danok daroagu emen barruan zer dan ez dakigun "zer" ixil bat. Orrek dardar dagianean, or poema baten asiera. Arrotz ba'zabiltz, edo erri-miñezko naigabez, barne-zirkin ori errezago da nabari. Adi orduan, olerkari; or dozu zerbaiten erne-naia, illunetik argiaren billa daukazin zerbait. Ar luma atz-artean, eta ernai. Poesi zauskada dozu erdi-min.

Aita Goiria sarri aurkitu izan zan orrela. Barne-miñez, eta barne-min ori, gaur eta biar, koplá labur politez adierazo izan dausku. Berak bakarrik daki zelako biotz-taupadak izan ebazan Kolonbia'n lenengo ta gero Euskalerrian. Dana dala, biotz-taupada ta zirrara orreik azalduz, ainbat ingurrazti ornidu dauskuz Kortederratar koplariak. Ona emen dasta daizun, "Nire azken kantua" deitua.

Jaungoikoak jarri nindun ni ludian
pozik bizi nendin gizonen artian;
bere antzeko egin nindun,
ixaki gogo eta soindun.

Beti izan dot neugaz Jaunaren eskua,
beti neugaz bere kerizpe gozua;
txiki ta gazte nintzala,
beti ikusi dot bere itzala.

Aberri ederra ta sendi maitia,
izan dira egiz nire jatorria;
Jauna nigaz beti maitaro,
agertu izan da aldioro.

Gaztetxo nintzala egin eustan deia,
beingo baten itxi neban nik ludia;
apaizgo-bidea nun artu,
karmeldar Anaidian sartu.

Aberritik urrun jun nintzan gazterik,
biotza oso-osoan samindurk;
Jainkoaren naia ikusita,
beingoz ni jun dana itxita.

Urte asko egin nitun atzerrian
Jaungoiko-artzain lez arimen atzian;
gogotsu mixiño-lanian,
naizta izan biotza Aberrian.

Pozik nintzan gero Euskalerriratu,
neure maiteekin barriro alkartu.
Katekin lotuta Aberria
aurkitu nun dana jausita.

Betiko etsaiak gogorki artuta,
semerik askok aztuta, salduta;
egoera bai baltz-illuna,
etorkizuna oso ituna.

Jaungoikoagandik guztiz aldunduta,
anaiak artean oso bananduta;
Aberri-miña dot barnean,
samin-negarra biotzean.

Bizia bai latza! Benetan mergatza!
Oinñazez eta itun zauritua natza.
Eldu jat zartzaro garaia
euskaldun onen amaia.

Sor-azo ninduzun, Jaungoiko aundia:
pozik dot onartzen Zuk erabagia.
Ar naizu zure ederrean,
beti-betiko atsedenean.

AITA ONAINDIA



ONDARRABIako KONDAIRA (KAMINAZPI)

ONDARRABIA ALA ONDARRIBIA?

Joan dan udan Kamiñazpi'k liburu barria atera eban "Ondarrabia'ko Kondaira" izenekoa. Erriaren izenari buruzko itaun au egiten dau: Ondarrabia ala Ondarribia.

Arazoa argitzeko Santxo Erregearen dokumentu bat dakar, 1.170 urtearen ingurukoa eta bertan auxe diño: "De Undarribia usque ad Oriam" = Undarribia'tik Oriaraiño.

Beraz, orduko izena *ibiarekin* amaitzen zan: Undar-*ibia*.

Undar ori ondar dala garbi dago: Ondarribia. Berba onetatik Ondarra-bia'ra ez da orrelako alde aundirik; *a* bat artun dau (Ondar Ondarra) eta *i* bat galdu dau (Ondarribia: Ondarrabia).

* * *

Arazoari argi geiago emoteko beste izen bi dakaz: *Urdanibia* eta *Behobia*. Urdanibia Ondarrabian dago eta Behobia errekan gora, Ondarrabia'tik kilometro batzuetara.

Urdanibia bere amaiera ondo gordetzen dau: *ibia*. Behobia, berriz, *i* bat galdu dau, Ondarrabia egin dauana berbera Beho-bia.

* * *

Undar-ibia zan Santxo Erregearen izena. Izen zaarra. 1170'garren urtekoa. Eta, Ondarrabiko *Urdan-ibia* be usain zaarra dau.

Nere iritzirako *Undar* eta *Urdan* biak dira berba bakarra: *r* eta *n* tokiz aldatu dira eta amaiera bardiña dabe, *ibia*.

Biak ondar-ibia dirala ematen dabe.

Ibia, erderaz *vado*, pasalekua. Mujikak adibide oneik agertzen ditu: *ibia* igaro, *ibitik* igaro, *ibiz* igaro.

Gipuzkoa eta Bizkaian beste au be esan nai dau: maria-beera, bajamar... Esan-nai onek ba-dau bestearekin zerikusirik, maria-beeran errez pasatzen ei dira ibaiak betetik bestera. Maria-beera, berez, ondar-ibia da.

Ibiak edonun dagoz erreketan; Bidasoan be an dago Beho-bia itsasotik gora. *H'a* antxiña *K* aoskatzen eben. Orregaitik Behobia Beko-ibia da. Bi ibi egozan: bat ondartzan eta bestea andik kilometro batzuetara, gerora lenengo zubia egin eben lekuan. Behobiako zubia izan da lenengoa; geroago egin ebezan Irun'go beste bi zubiak: bata bide-zabalarena eta bestea tren-bidearena.

* * *

Deba'n be bardin gertatzen da: orain dagoen zubia, barria da; zubi zaarrak Astigar-ibia'n egozen, itsasotik bost kilometrora, Sasiola inguruan. Erromatarren garaiko zubi baten aztarnak dagoz, eta gorago lenengo bide-zabaleko zubia, eta aren aurrean zubi barria eta bien gainetik, autopistako bi zubi mando. Danak alkarregaz.

Ondartzatik kanpora, an egoan "Deva" ibaiaren ibia.

* * *

Barruan be bardin-bardin gertaten da. Lazkano erriak badauko erdi-erdian bide zabaleko zubi bat; baiña, antxiñako bide estuak, Olaberriatik beera etorrena, arek Amil-ibia'n dauko bere zubi zaarra, Ataungo mugan. An egoan Agaunza errekan ibia, batetik bestera pasateko lekurik errazena eta antxe bertan egin eben zubia.

* * *

Arazoa naiko garbi ikusten dot: Bidasoaren barran, maria-beeran, ibia egoten zan beste aldera pasateko eta ortatik datorkio Ondar-bia edo Ondarra-ibia ipiñitako izana.

ARRINDA'tar ANES

LAUAXETA

Gazte arotik maite zenduan
 Aberri menperatua,
 biotz barrendik sentidu zendun
 beren miñaren oiua;
 norbere ama ikusirikan
 indarkeriz zapaldua,
 zure bizia samindu jatzun
 biotz zauriz urratua.

Laguntza deia asmatu zendun
 seme leialen erara,
 al zan aiñean opalduteko
 amaren ezbearrera;
 Urtzi ta lurra emon eutzuen
 bultzada garra ortara,
 buru ta biotz eskeini ziñan
 Aberriaren miñera.

Lenen lenengo buruz argitu
 gizonen jakiturian,
 era-berean odolez gertu
 biotza maitasunian;

zure izkuntzak urratu zitun
 bide barriak errian,
 zure biotza gori-goririk
 abertzaletasunian.

Mutil gaztea amets betean,
 zenbiltzan lanez josirik,
 luma bizi az erri argitzen
 zuzentasuneen bidetik;
 erriarentzat gura zenduan
 askatasuna legetik,
 zure erriaz bat egin ziñan
 itz ta biotzez urturik.

Gero ondoren gaitz itzalena
 eldu zan gure errira,
 guda zakarra gorroto biziz
 erri ta mendietara;
 Gernikan artuz Gazteizera
 erun zinduzen iltera;
 Jainko maitatzen ta Aberri garrez
 odola-ixuriz lurrera.

PAULIN

BARRIEN BARRIZ

Barrien barriz alaitzeko
 bizia etorri dator bai;
 negutar lo baltza austeko
 etorbidez, zelairik zelai,
 izate-poza edatzeko
 udabarritar kantuz alai
 bizia odol barritzeko,
 etorri datorkigu, ernai.

Baña, ai!, bizidun bizia,
 ez al da, latseko uraren
 arriz ganeko ibilia
 edota, joan doanaren
 igesizko ots kantaria?
 ez al da itxasoratzearen
 pilpilkadazko doñuaren
 igarotze agurkaria?

OROITZA ZARRAK

Soiñekotu nagizue oroitzok.
 ¡Zartzaro baltzari darion otza!
 Ibaiak agortu diranez gero...
 ¡Au da au billustasunezko lotsa!

Soiñekotu nagizue oroitzok,
 ia ni naizen bezain gorputz zarrak;
 urrundik niganantza zatonenok
 ¡denpora iganaren sugarrak!

Nire oroitzok bigundu ogea,
 azkenengoz lo egingo dotana;
 sustraitik dator enbor izatea,
 egun batez ni etzungo naizena!

MUNIATEGI-tar SABIN

GALDAKANO TA BEREN BASETXEAK

Lenago be iñoz zerbait idatziak gera Galdakano bizite-erria dalata, bada, jaiotzaz bertokoak ez ba'gara be maite dogu erri au, gaztetxutatik geiago pozik berton bizi geralko. Orrexegaitik geiago be ez dau ikeratu bear gure irakurleak baten geiagotan erri onetaz idatziten ba'dogu.

Erri zabal onek, amabi aneurkin, kilometro, dituz Sorkalde'tik Sarkalde'ra luze eta amarrenbat Ipar'etik Ego'ra zabal. Danok ez ba'dira be, mendiz ingurututa, baiña, bai zelekada ederrak be ba-dituala, Ibaizabal ibai urtsuak erdi-erditik eta beren ibaiburuak, lats edo errekatu aberatsak bustita.

Orain 50 edo 60'arte, eta zerbait gitxiagorarte be, basetxe ederrez orniduta aurkitzen zan gure erri au. Asko, geienak, bizitze bikoak eta besteak bizileku batekoak baiña, bai zelekada ederrak be ba-dituala, Ibaizabal ibai urtsuak erdi-erditik eta beren ibaiburuak, lats edo errekatu tzuk landolak iruntzita eta beste batzuk baserritar zarrak il ondoren, gazte-lugin gitxi sortzen dalako. Basetxeaz batera gure euzkera txukuna, geienetan beintzat, eta oitura jator garbiak aldenduaz.

Orain egin-barri da Bizkai'ko Aldundia, basetxe antze-rako etxe eder apain bat Gangure mendidien Sorkaldean, Urabrugana izenez ezagutzen dogun muñoan. Esan dogunez, oso etxe ederra, baiña, naita inguruko lurra ondo baiño obeto landu dituen, ez dogu uste basetxetzako, lugintzarako izango danik leku alai ori, goia ta pizkat lakatza dalako goiune ori. Ziurki beste zeregiñen baterako izango dalakoan gara, nai-ta ziur ezin jakin izan dogun beren zeregiña.

Orretara izanik gure erri au, gaitz izango dogu aurre-rantzean beronen mendi-gañen batetik sarritan abestu dogun Iparragarri'ren abesti txukuna pozez abestutea: "¡Ara nundiran mendi maitiak! ¡Ara nundiran zelaiak! BASERRI EDER ZURI-ZURIAK, iturri eta ibaiak..." baserri zuri ederrik ez dogulako ikusiko. Zelango samiña guretzako, benetan galdu dalako gure izkuntza euzkeraren zati aundi bat!

Idatzitakoa ta guzti be, ba'dau edertasuna eta bertan atsegiñez biziteko gauza egokirik asko; landola ugariak, etxaide eder argitsuak, euzko ikastola, erri —ikastola ta ikastetxe nagusiak, osatetxe onak, idaztitegi zabal, zerikasi ugari dabenak eta abar luze bat, aintziñako ikusigarriarik asko gaiñera.

Orain urte batzuk beste erri bateko abesbatz bateri entzuten nengoan gure erri onetan eta, azkenez euren erriari abestu eutsen ereski polit bat eta benetan zirriada egin eusten, gure erri onek baiño zer-ikusitako gitxiagokoa dalako erri ori. Orduan oso ereslari gorengoa genduan (G.B.) Moreno'tar Maximo'ri esan neuzan: —Zelan zu zaren ereslaria izan da ez dautsazu orrelako ereserki bat gure erri oneri ezkintzen?

—Bada, nik ez dakit euzkera asko baiña, zuk izkia idatziten ba'dozu, eresia, musika jarriko dautset nik, esan eustan. Eta naita olerkari ezezkorra izan, asi nintzan idatitzen eta ara auxe idatzi neban, naita eresirik jarri barik geratu zan andik laster gaixo zital batek jota il zalako Maximo ereslari jatorra. Ara bera:

Galdakan erri zabal maitia
Ganguren, Upo, Arrizuri mendi-tartean,
Ibaizabal ibaiak bustaztuta
Kantauri itxaso'rako, bidean.

Erri asko ederragotik
ez-dago ludi zabalean,
berton beti bizi nai genduke
Goiko Jaunak eruan artean.

¡Gora Galdakano erri txukuna!
¡gora ta gora! galdakanotarrak!,
maite dagiguzan arbasoak sortutako
izkuntza (Euzkera) ta oitura garbiak.

Iraun dagigun bide zuzenetik
ez-gaitezan izan iñoz koldarrak,
adibidez artuak izan gaitezan
bertora datorzan guztiak.

Orreik dira guk sortu genduzan "zortziko biak".

ALTUNA'tar JOSU



OROITZAPENETAN (BASARRI'ren BERTSOAK)

ZER'eko zuzendari Jauna:

Aurtengo Jorraillaren 26-an, Gernika Francotarrek kixkalduta laga eben 50-garren urteurrena gogoratu dogu. Benetan egun gogoangarria. Ainbeste euskal seme-alabek lergaillu edo bonba bidez sutan erreta eriotza aurkitu eben eguna.

Ori dala-ta, gauza asko esan dira Gernika'ri buruz, bai izparringi eta baita irrati bide naiz urrutirudizkin'etik. Aldi artan bonbarbeoa jasan ebenen aotik gauza ikaragarriak entzun doguz.

Berrogetamar urte denpora luzea da gizonaren bizitzan, naiz eta kondairan zear txiki edo labur geratu. Makiña bat gauza irakurri izan doguz Gernika dala-ta igarotako urteetan; baiña oraingo ospakizun guztien artean, utsune bat nabari izan dot neure barruan. Gizon aundi ta abertzale zintzo baten izena ez dot iñon ikusi. Gernika'ko jazoera bere aldian ain garbi ta gordiñ bertso bidez emon eban gizon jator bategaz aztu egin gara Bizkaitarrok.

Nor da baiña gizon ori? *BASARRI*.

Orain dala berrogetaka urte asko, eskuz-esku alkarri emoten ibiltzen giñan Gernikari buruz berak egindako bertsoak zabaltzen. Baita leku ezaguetan kantau be egiten genduzan. Bertso zoragarriak diralako, eta euskaldunen erri santuari zuzendutakoak, ezin geinkez bertan bera galtzen laga.

Ez dakit Bizkai aldean ezagutuak diran. Leku askotan ez beñipen. Esango neuke geure errian geratu aldia egiñ ebela. Bizkaiko lenengo ta azkenengo errian (Ondarru'n).

Orretxegaitik eta Bizkaitarra naizen aldetik, uste dot Basarri'rekiko zorretan gagozala, eta zor auxe beteteko, bere bertsoak argitaratu nai neukez gure aldizkari ZER-en bitartez. Orrela, iñoiz irakurri bako askok eukiko dau bertso oneik ezagutzeko aukera. Jakin dagitela gu Bizkaitarrok ez gareala esker txarrekoak.

Ona emen jarraian Basarri jaunak egin ebazan bertsoak. Ba-leike okertxoren bat edo beste egotea: urte asko dira igaro diranak eta apurtxo bat kostau jata guztiak lenengo gogora ekarri eta gero zerrendan bear dan lez ipintea.

GERNIKA'KO BONBARDEOA

I

Milla bederatzireun eta
Ogeta amazapia,
Euskaldunentzat urte beltz illun
Triste ta negargarria,
Auts bihurturik utzi zutena
Gernika zoragarria,
Eusko reliki maitatuenak
Gordetzen zitun erria.

II

Pitxirik goxo ta kutunena
Zu ziñan euskaldunentzat,
Lur mardul ona eman bai zendun
Arbola maitiarentzat.
Pentsatu utzez begiak irai
Ditugu negarrarentzat,
Orra zer sari modu zeukaten
Etsai ankerrak zuretzat.

III

Apirille'ko illarekin zan
Ogeitasei garrenean,
Ain juxtun ere Peri eguna
Astelen arratsaldean,
Kale-Baserri, millaka anai
Gizatasun ederrean,
Plaza inguruan aurkitzen ziran
Lengo oitura zarrean.

IV

Kanpandorreko eskilak asi
Ziran dinbili-danbala,
Goiko pitxien motor burrunba
Entzuna zan beriala,
Emakume ta ume gaixoak
Korrika zeriotea,
Eriotzari iges nairikan
Nora jo etzekitela.

AZPIRI'tar JOXE MARI

GUDALDIA

V

Bertsoz nork esan bonba txar aien
Indar gaiztoko danbara,
Zutiñik etzuten utzi beintzat
Bizi leku bat bakarra;
Ta dana xetu zuten garaian
Alde guztitik sugarra,
Erru gabeko gixajoentzat
Orra or azken ederra.

VI

Bizi ziranak igesten zuten
Sutegi zatar artatik,
Ta egazkiñak tiro ta tiro
Etengabe goietatik
Kristau gorputzak alde batetik
Beso-buruak bestetik,
Odol gorrizko itxaso artan
Etzan ikusten besterik.

VII

Eunka ziran etxe zurien
Zakarpean geldituak,
Ez jakin zenbat kale gorrian
Zearo erdibituak,
Inpernu ontan usten gaituzte
Laguntza gabe galduak,
Ai! Euskaldunen miñ-oiñazerik
Ez du sentitzen munduak.

VIII

Millatik gora izandu ziran
Arnasa utzitakoak:
Ez jakin zenbat txit-zauriturik
Eri gelditutakoak,
Ta danetatik geien geienak
Emazte ta umetxoak,
Gerra txar ontan erru galantik
Izango zuten gaixoak.

IX

Puska dituzte erri ta mendi
Apain eta maitekorrak.
Puska dituzte basetxe txuri
Gure kabi on samurrak:
Ta xirtzildurik kaletan utzi
Bai euskaldunen azurrak,
Alemanitik gu txikitzera
Ekarrirako maltzurak.

X

Basati gaizto odol zaleak
Atzerritikan ekarten,
Tokirik zoragarrienari
Txikituta su ematen.
Auts egindako gure Gernika
Antzika dago esaten,
Franco ta bere lagun-zaleak
Zein biotz ona daukaten.

XI

España aundi bat egin nairikan
Gerra beltz ontan asiak,
Geure erririk ederren aiek
Beren aginduz ausiak,
Denpora joanda gero damutzen
Zeraten pekatariak,
Zer gunetako jaunak zeraten
Badaki mundu guztiak.

XII

Ikusi zuten zenbat kristau on
Odolostu zituztela.
Ikusi zuten berdin gabeko
Pekatua zeukatela.
Ikusi zuten mundua kontra
Jaikiko zitzaioleta.
Eta orduan zabaldu zuten
Gorriak egin zutela.

XIII

Ai! Esaerak dion bezela
Fededun ta euskalduna,
Berak badaki zein ederra dan
Barrengo garbitasuna.
Itxoin jaunak bai, itxoin ta lasai
Iritxiko da eguna,
Goiko jaunaren aurrean kontu
Eman bearko deguna.

XIV

Ez da ez alperrikako izan
Or ixuri dan odola.
Pentsa oraindik emaitz ederrak
Ematekotan dagola.
Eusko gogoa armez ta indarrez
Ezin il leike iñola,
Gernika erre ziguten baiña
Zutiñik dago Arbola.

BASARRI

SORGIÑAK (IV)

Lope de Isasi, Lezo'ko Erretore Jaunak, sorginai buruz egindako txostenaren azken zatia.

Amalau urteko mutil batek autortu eban: euren etxean naparroako neska bat bizi zala, eta bein lau sagar emon eutsazala, eta jan ebazanean, sorgiña gauzez bera lo egoan gelara sartu zala, eta esan eutsala: "neugaz etorri bear dozu".

Eta berak ez ebala izan adorerik ezetz esateko, eta lepoan artuta etxeari inguru bat emonez, aixetan zear landa batera eroan ebala, eta landa orretan lagun asko dantzan egoala, eta danen erdian aker bat ikusten zala, aulki baten gainean jesarrita.

Eta sorgiñak mutilla Akerrari aurkeztu eutsala, eta gero an egon zala beste mutil batzuekaz batera zapoak zaintzen.

AKERRAREN DANTZEA

Eta sorgin guztiak naiko dantza egin ondoren, Akerra bera be dantzan asi zala, eta orduan sorgin guztiak barre andiak egiten ebezala. Eta Akerrak buru gainean bost adar eukazala, eta adarren erdian uiz edo pikeaz egindako kandela bat.

Eta beste gau askotan etorri jakola andra sorgin ori, eta esaten eutsala berari: "Ea, ba-goaz ala?". Eta mutillak ezin eutsala ezezik emon, eta beste gau askotan lepo gainean artu eta olan Akelarrera eroan eta ekarri egiten ebala.

Mutil onen etxean bere arrebak elbarrituta geisorik dagoz, eta bertako osagilleek uste dabe ori sorgiñak egindako kaltea dala.

NAFARROAKO NESKA SORGIÑA

Beste erri baten ogei urteko neska gazte bat sorgiña zan, eta onek autortu eban, baita egia zala, Naparroako gizon sorgin batek bein baten sagar bat emon eutsala, eta berak jan egin ebala, eta gero gau aretan Akelarreko landara eroan ebala, eta an egon zala beste neska batzuekaz batera zapoak zaintzen.

DEABRUAZ ALKARTUTA

Sorgiñak deabruaz alkartuta dagoz (diño Lope de Isasti'k) eta onengandik munduaren azken bazterreran zer jazoten dan, ba-dakie.

Eta onegatik egiten dira asko sorgin: urrunera, Terranobara joan diran euren senar arrantzaleen barriak jakitearren.

Beste batzuk sorgin egiten dira aragiaren atsegiñagatik. Eta bein sorgin-alkarte onetan sartu ezkerro, oso gatxa da andik urtetea. Eta, ea sorgiñak diran eurai itandu ezkerro ukatu egiten dabe. Eta geiago be bai, eurak ez dabela sorgiñetan sinisten, lotsa barik esaten dabe.

ABADEAK SORGIÑETAN EZ SINISTEN

Ba-dira emen (diño Isasti Jaunak) abade eta fraile batzuk pulpitutik sorginik ez dala esaten dabenak, eta ez dabela kalterik egiten, eta gitxiago umeak ilten.

Geiago be esaten dabe: sorgiñetan sinistea zorakeri andia dala, eta sorgiñak ez dabela Akelarrera joateko egaz egiten, ezta an dantzarik egiten. Eta sorgiñak ume txiki ildakoen gorpuak jaten dabezala oraindik gitxiago sinistu bear dala.

Onelako gauzak pulpituetatik esatea oso kaltegarri dala nok ez dau ikusten? Bada onela deabruaren indarra geiago zabaltzen da lurralde oneta, eta deabrua onela libre gelditzen da kalte geiago egiteko.

SORGIÑEN AURKA OTOITZA

Emoiguzu, Jauna, deabruaren gaiztakeri guztiak baztertzea, Zu bakarrik, biotz garbiz maite zaiguzan. Jesu-kristo gure Jaunaren bitartez.

Onela amaitzen dau Lope de Isasti Jaunak, sorgiñari buruz, Iruña'ko gotzainari, Prudentzio Sandobal Jaunari, egindako txostena, 1618.garren urtean.

GOIKOETXEA IÑAKI

OTO'REN MELOIAK

Oraingo oitura barria, munduan zear, baita Euskalerrian be, naiko zaarra: langabezia arintzeko soro-zatitxo bat emon langabetueri.

Oto'ri be lur-zati bat emon eutsoen Erriberan eta Europa'ko merkataritzarako emoitz onak dirala-eta meloiak ereintzen ekin dau gure gizonak.

Lurra an, Jainkoak dakien baztar batean, emon eutsoen eta solo-erdian txabolatxo bat jaso eban bertan jan eta aldietan lo be egiteko.

* * *

Udazken oparoa gertatu zan eta meloiak ugari bezin ederrak eldu ziran. Oto naiko buru-soil dabil aspalditxo onetan; urteak be eta, jakina, urteekin batera joan oi dira buruko txima-uleak. Baiña, berak esaten dauana:

—Sekula ikusi dok asto buru-soillik?

Egun batez Sakana'ko Urlia jaunak onela eraso eutson:

—Eta, buru-soil ez dan txarririk..?

* * *

Oto jaun prestuari ori esan? Eta, gaiñera Etxarriko batek..? Lazkao'ko Estraposilbeneko txarridunak esan ba' eben, gaitz erdi, Gipuzkoa-aldean txarriak ez dauke ule-rik; baiña, Etxarriko mendietan txarri uledunak be ikusi oi dira...

Dana dala, Oto asarre jarri jakun:

—Ni lako gizona txarri batekin konparatu..!

—Zuk besteok astoakin konparatu gozak... Eta, kito! Eztabaidea bertan amaitu zan.

* * *

Meloiak batzeko garaia zalarik, joan da Oto Erriberara. Banan banako meloiak agertzen ziran soloan. Maitasunez jaso eta txabolan gorde ebazan kurioso-kurioso eta begirunez. Artan ari dala gauak arrapatu eban eta txabolan lo egitea erabaki. Etxun orduko, loak artu eban...

“Egunez ikusi eta gaeuz eroan” esaten dabe nik daki-ten bi erri buruz: alan egiten ei dabe bertakoak. Areik bakarrik ez. Gau artan etorri zanak, meloiak ikusi ebazan egunez, eta sorgiñak erratzeetan urteten daben orduan, Oto'ren txabolan sartu lapurretan gaeuz.

Merke eroatekotan, merkeago ezin, ederrenak aukeratu. Artan ebillen gure lapurra illunpeetan, oneri eldu, ari ikutu, ederrenen billa. Ikutuz-ikutuz Oto'ren buru-soillarekin topo egin dau:

—Au dok ederrena! Esan eban berekiko.

Ori esanarekin batera meloia jasotzen asi danean, orduantxe ebillen Oto amesetan: eizera joan eta kokodrillo batek, ao zabalik, eldu eutson burutik, Afrikan.

Jo dau garraxia birikietako indar guztiaz.

Lapurra, meloia garraxika entzun ebanean, zerraldo jausi zan lurrera kordarik gabe. Otok krisaillua piztu ebanean, kokodriloaren orde, gizon bat topau eban bere ega-lean, konorterik gabe.

* * *

Otok ez zekien zer pentsa eta aurpegira ura bota, eutsoanean orduan esnatu zan lapurra zearo urduri. Larritasunean tabakoak bear izaten dabe zenbaitzuk eta arek be bai.

—Tabakorik ba'dozu? Esan eutson apalik eta bildurti eskale antzeko arek.

—Bai, ba'dot.

—Emango daustazu apurtxo bat?

—Bai, emango dautzu.

Bere boltxa tximurretik atera eban tabako apurtxu bat eta emon eutson.

—Paperik ba'dozu?

—Bai, badot. Txalekoaren boltxikotik atera eta emon eutson Zig-zag papeltxua.

—Surik ba'dozu?

—Sua?

—Bai, sua.

Otok asarre ekin eutson:

—Lenengo tabakoa, gero papela eta orain sua? Ezpanak nai dozuz, koino, erretzeko espanak..? Zer kristau-jenero zara ba?

Alan be emon eutsozan meloi bi, ez bait zan konturatu ze arraiotara etorri zan bere txabolar. Izan be Otok burua gogorra, baiña biotza biguna.

ARRINDA'tar ANES

JUANTXO-TXIKIREN ADIMENA ETA NAIMENA

Animalirik bizkorrenak ez dau oraindiño barre egiten ikasi; baiña, umerik txikienak, bai. Umeak eta abereak badabe bien arteko alde desberdin bat: barre egitea.

Barre egiteko, adimen tantotxo bat bear da eta orixe falta jako abereari. Umeak, ordea, ba-dau barruko argi-izpi ori, adimen ori... Barre egiten ba-daki.

* * *

Lau urterako asiko jatzu Juantxo-txiki galdezka:

—Aitatxu, eta ori zegaitik? Amatxu, eta bestea zergaitik?

Zergaitik au? Zergaitik bestea? Zergaitik a? Zergaitik onelan? Zergaitik alan? Zergaitik gora? Zergaitik beera?

Zergaitik..? Zergaitik..? Zergaitik..?

Askotan txakurren salara bialtzeko moduan jartzen jaku Juantxo-txiki.

* * *

Egillea eta bere egintzaren arteko ar-emanak ikusten asita dago: arotzak eta onek egindako maiak badabela zer ikusirik alkarrekin. Orregaitik sortzen jakoz ainbeste galdera. Zergaitik ori? Jakin-miña da.

Orduan jartzen ditu bere gurasoak larri-aldian, bear dan lako erantzunik ez dakielako.

Ez, iñoz be, guzurrik erantzun.

Erantzunik ez ba'dakizu, ez dakizula esan eta kito.

Eta ondoren galdetuko dautzu, ea zergaitik ez dakizun.

* * *

Umeari bere adimena zabaltzen eta argitzen joako. Ona eta txarra, biak ez dirala berdin be, konturartzen asita dago zazpi urte betetzerako.

Baiña, amabi urte bete inguruan argitzen jako adimena eta argi ori zabaltzen eta indartzen joango jako berroge-aka urteak bete arteraiño... Argiago eta zabalago. Gerora asiko dira gauzak beeruntz...

* * *

Juantxo-txikiren adimena eta sentimena aurtzaroan eta gaztaroan alkarrekin doaz; baiña, beti sentimena aurretik eta nagusi.

Sentimenaren mende dago Juantxo-txiki adimena indartu artean. Bi aalmen orreik batera doaz azitzen, sentitze-ko aalmena eta aditzeko, entenditzeko, aalmena. Sentimena biziago eta indartsuago bizitzaren asieran; geroago sentime-nak planto egingo dauanean, adimenak oraindik bide luzeak ditu egiteko. Eta sentimenaren mende zegoan gizakia, geroago adimenaren mende egongo da. Egon bear leuke, beintzat.

Adimena nagusitzen danetik ikusten doguz gazte zoro batzuk euren buruak zuzentzen; sentimenak eraginda ibi-lli dira ordurarte, adimenik ez ba'leuke lez. Adimena nagusitzean, ordea, etorri jake burua bere onera.

Burua bizkar-gaiñean txapela eramateko bakarrik ez euskuen ipiñi. Burua eta bere adimena erabiltzen ez ba'do-guz, ugartu eta moteldu egingo jakuz. Bide ugariak eta erosoak daukaguz gaurko egunez geure buruak argitu aal izateko.

* * *

Naimena

Adimenarekin batera ba'dau Juantxo-txikik naimena be. Naimena, gogoa, borondatea... guztiak dira antzeko. Bere gogoa besteai buztarri antzera ezartzeko katramillak, titiarekin batera ikasten ditu Juantxo-txikik.

Berak nai dauan guztietan, bere gogora jartzen bazera, galduta zagoz. Bere menpean bizi bearko dozu. Mizkeri geiegien ondorenak. Egiazko maitasunak ez dau bigunkeririk maite.

* * *

Besteren agindua bearrezkoa dau Juantxo-txikik umea dan artean. Berez, iñoren menpekoa da, aurra dan artean. Tarteka protestak eta zalapartak egingo ditu aginduen aurka; baiña, besteen agindu ori bearrezkoa jako; ez dau oraindi-ño, bere barruan, artarako indar bereizirik, bere buruari agintzeko aalmenik.

Bere buruaren jabe izateko irrika, amabi urterekin sortzen jako. Andik aurrera, iñoren menpean egoterik ez jako gogoko eta bere barruko biurrikeri ori adiñakin batera joango jako aunditzen.

Bere buruaren jabe nai dau.

Juantxo-txiki libre izateko sortua da. Nor izateko. Eta giza-emakumeen norkia ez da muñeko, panpin, 'andere' edo 'andrasko' izatea. Persona eta nor izatea, baino.

Alditan beintzat, gazteen protestak arrazoibidezkoak izaten dira, gure gizarteak eragozpenak besterik ez dituala-ko beuroen burujabetasunaren bideetan...

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Aretan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.